



Auzapezaren hitza



**Aitzintzea,
gure
lehentasuna**

Hendaia herriak ingurumen ederra du, bai, baina, itsasertzeko gainerako auzo herri gehienek bezala, itsasoak edota Bidasoak gainezka egiteko arriskupean, bai eta euri uren zurrupiten arriskupean da.

Erraz konpreni daiteke horiek guztiak batera gertatuz gero, kalte handiak, bai eta biktimak ere izan daitezkeela.

Halatan, bada, Herriko Etxeak klima aurreikuspenak kontuan hartu eta biztanle orori eman nahi dizkie izan daitezkeen arrisku nagusien gaineko informazioa. Hortik sortu da abiatu berri dugun herriko zaintza plana. Tresna orokor bat da, herriko lurretan diren arriskuak eta, aldi berean, alerta edo istripu egoeretan egin beharrekoak azaltzen dituena.

Ariketak eginen ditugu, noizta-noizta, biztanleek dituzten zalantzak argi ditzaten.

Biztanleak arrisku nagusien jakinean jartze horrekin ororen gogoetara ekarri nahi nuke dispositiboa baliagarri gertatuko bazaigu, erne baino erneago behar dugula izan eta elkartasun osoz joka.

Kotte ECENARRO

Hendaia auzapeza

Departamendu kontseilari

Hemen atzemanen duzue dokumentua:
www.hendaia.eus, frantsesez,
euskaraz eta espainolez

Hendaian diren ARRISKU NAGUSIEN gaineko HERRIKO INFORMAZIO DOKUMENTUA

Herrian diren **ARRISKUAK**

NATURALA

Uholde arriskua

Hendaia herriari gerta dakioko itsasertzeko ibaiek gainezka egitea edo euri zurrupitak jasatea:

- Bidasoaren ur handitzeak Intzura inguruan eragiten du gehienbat, hastapenean, eskoletan, udal zerbitzu teknikoetan eta ibaiertzean den zenbait enpresetan. Ur handiagotetan, industrialde osora heda daiteke ura (aldi berean ibaiaren handitzea eta marea koefiziente handiak badira). Historian dugun erreferentzia 1983ko abuztuko dugu, zeinean urak maila oso goretara heldu baitzen Hendaia badiaren.
- Mentaberriko ur xirripa herriaren ekialdean korritzen da, Urruñarekin muga eginez, eta ur ertzean diren sasoiko zenbait ostatalektara heda daiteke, batez ere Anziola, Dorrondegi... auzoetan.
- Eurite handietan, zurrupitak gerta daitezke zenbait auzotan (Harrizabaleta-Partxetegia, Berekoetxea, Potenia; hala gertatu zen 2013ko ekaineko ekaitzarekin).



Hendaia karrika bat, 2013ko ekaineko ekaitzean (iturria: Sud-Ouest)

NATURALA

Itsasoak gaina hartzeko arriskua

Hendaia herriari gerta dakioko Atlantikoko tenpesten ondorioz itsasoak gaina hartzea. Halako gertakari handiak izan dira 1999ko abenduan (Martin), 2010eko otsailean (Xynthia), 2009ko urtarrilean (Klaus) eta, azkenik, 2014ko neguko tenpesta.

Itsas etorbidea da leku arriskutsuena. Lehengo kasino zaharreko saltokiek dute arrisku gehien, baina Palmondoko biribilguneraino heda daiteke itsasoa, gertakari handienetan.

Marea koefiziente handietan, Intzurako zenbait errepede ere gerta daiteke uren pean.



Itsas etorbidea, 2014ko otsaileko tenpesta ondoren (Iturria: herriko etxea)

TEKNOLOGIKOA

Gai lanjerosen garraio arriskua

Gai lanjerosen garraioa (GLG-TMD) hainbat bidez egiten da: errepedez, trenbidez, ibai bidez eta lurrazpiko bidez. Gai lanjerosak tartean izanik gertatzen diren istripuek arriskuan jartzen dituzte inguruko jendeak eta ondasunak.

Hendaia gai lanjerosen errepede garraioaren arriskupean da, D810 eta GI-636 errepedeetan (Pausu aldean) eta A63 autobidean, eta trenbide garraioaren arriskupean, SNCF trenbidean. Halakorik gertatuko balitz, sokorri zerbitzuek eta udal taldeak zabalduko lituzkete bete beharreko segurtasun aginduak.



Iturria: Industria ministerioa

NATURALA

Lurrikara arriskua

Hendaia 3. kategorian sailkatua da, lurrikaren arrisku zonen Frantziako sailkapenean. Arriskua ez da, beraz, handia. Herri lur oro da hala sailkatua eta eraikin oro izan daiteke kalteturik, lurrikararen indar eta iraupenaren arabera.



Bidasoa 1 plana:

1. plana abiatzen da Bidasoak, Hendaiako badian, 2,30m NGF gora izatera heltzean, horrek Intzurako gainezkatzei aitzina hartzeko aukera ematen baitu. Egoera horretan, udal taldea mobilizatzen da eta Intzurako eskolak segurtatzen hasten. Harrera lekuak ireki eta gainezkatze arrisku gehien duten enpresei horren berri ematen die.


Bidasoa 2 plana:

2. plana abiatzen da Bidasoak, Hendaiako badian, 2,75m NGF gora izatera heldu eta Intzurako, non edo non, lehen gainezkatzeak gertatzen hastarekin. Udal taldeak arrisku handienetan diren enpresak segurtatuko ditu eta Intzurako sektore osoari (bizilekuak, enpresak, etab.) jakinaraziko dio.

Bidasoa 3 plana:

3. plana abiatzen da Bidasoak, Hendaiako badian, 3,05m NGF gora izatera heldu eta, gainezkatzeak han-hemenka hedatzen ari direnean. Intzurako alde osoari ematen zaio alerta eta segurtatzen da. Urpean diren errepideak segurtatzen dira eta zonarako sarbidea hestean.

*NGF: Frantziako Maila Orokorra.



HARRERA LEKUA:

Herrian ezbeharren bat gertatu eta tokiak jendez husteko abisua emanez gero, zenbait leku izanen dira harrera leku: **Irlandatz gimnasioa, Lizeo Profesionala eta Azureva gunea**. Bata ala bestea hautatzeko, gertatu den ezbeharra nolako den eta non gertatu den hartuko dira kontuan.

SEGURTASUN AGINDUAK

AITZINETIK

- Arriskuaren gaineko informazioa bildu: maiztasuna, neurria (Herriko Etxean, Prefekturan, Estatuaren zerbitzuetan)
- **Pilaz dabilen irrati hargailua ukan**, inguruko irrati igorleak ematen dituen informazioei adi eta agintarien aginduen beha izan.

ARTEAN

Urak gora datozela entzun eta, honako hauek egin itzazu:

- Hets itzazu ateak, soto leihoak, airebideak... ura sartzeari traba egin eta kalteak mugatzeko.
- Argindarra eta gasa ken, elektrokutatze edo zapartatzerik gerta ez dadin.
- Goiko solairuetara igo, honako hauek eramanik: edateko ura, jatekoak, nortasun agiriak, pilaz dabilen irrati hargailua, eskuargia, ordezko pilak, jantzi berogarriak, zure botikak.

Sokorri emailak etorri bitartean, baldintza onetan izateko

- Inguruko irrati igorleari adi izan, segitu beharreko aginduak ezagutzeko.
- Lekua uzteko prest izan, agintariekin hala aginduz gero.
- Nortasun agiriak har eta, ahal bada, eraikina hets.
- Ez haurren xerka joan eskolara; eskola arduratuko da haietaz.
- Beharrezkoa ez bada, ez telefona, lineak sokorri taldeentzat libre izan daitez.

- Uholdeak harrapatu aldeetan ez oinez edo autoz ibili; arriskuaren xerka zindoazke.
- Ez autoan gera, urak eraman lezake.
- Ez gibel egin.

Lasai manten zaitetz, sokorri taldeak etorriko dira.

GERO

- Lekuak airezta eta desinfekta itzazu.
- Etxera hel zaitetzkeela segurtu ezazu, sokorri zerbitzuek eman aginduei jarraikiz.
- Argindarra eta beste horniduren sarerik ez eman abian, zirkuitoak teknikoki ikuskatu gabe.
- Zure osasunerako, ez edan dutxuluko edo putzuko ura, Herriko Etxeak edan daitezkeela erran arte.
- **Lokalak berogailuz bero itzazu**, hori egin daitezkeenean.
- Kalteak zerrenda itzazu.



ITSASOAK GAINA HARTZEKO ARRISKUA

Ekintza plana abiatzen da baldin eta uhinak lehengo kasinoaren eskaleren goi aldera heltzen badira eta itsas etorbidera sartzen. Marea koefizienteak, tiraina, haizea, itsas goraren ordua ere adierazle garrantzitsuak dira eta kontuan hartzekoak, erabakiak hartzerakoan. Udal taldeak, aitzinetik, halako egoera baten kudeatzeko herriaren dispositiboak abian jarri dela (biztanleei abisua ematea, ibilgailuak kentzea, itsas hegirako sarbideak heste, etab...) zaindu beharko du.

SEGURTASUN AGINDUAK

AITZINETIK

- Arrisku lekuetan diren ateetara eta leiho zabaletara egokitzen diren **urari traba egiteko dispositiboak** egoki presta itzazu.
- Goiko solairurik ez dutenek tarte baterako, beste nonbait ostatatzeko aukera galde dezatela.
- **Pilaz dabilen irrati hargailua ukan**, inguruko irrati igorleak banatzen dituen informazioak entzun eta agintarien aginduen zain izan.
- **Itsas aitzinean bizi direnentzat**: kokatu berrikan, auzoei galde egiezu nolako eragina ukan duten azken tenpestek eta noraino heldu den ura.

ARTEAN


Tenpesta iragarri denean, honako hau egizu:

- Hets itzazu atea, soto leihoak, airebideak, ... ura sartzeari traba egin eta kalteak mugatzeko.
- Argindarra eta gasa ken, elektrokutitze edo zapartatzerik gerta ez dadin.
- Goiko solairuetara igo (zure etxean edo ondokoren batean), honako hauek eramanik: edateko ura, jatekoak, nortasun agiriak, pilaz dabilen irrati hargailua, eskuargia, ordezeko pilak, jantzi berogarriak, zure botikak.
- **Ez inolaz ere itsasoa ikustera hurbil; istripu anitz gertatzen da halako arinkerien ondorioz!**

Sokorri emaileak etorri bitartean, baldintza onetan izateko

- Inguruko irratiari adi izan, segitu beharreko aginduak ezagutzeko.
- Lekuak uzteko presta izan, agintariek hala aginduz gero.
- Nortasun agiriak har eta, ahal bada, eraikina hets.
- Ez haurren xerka joan eskolara; eskola arduratuko da haietaz.
- Beharrezkoa ez bada, ez telefona, lineak sokorri taldeentzat libre izan daitezten.
- Uholdeak harrapatu aldeetan ez oinez edo autoz ibili, arriskuaren xerka zindoazke.
- Ez autoan gera, urak eraman lezake.
- Ez gibel egin.

Lasai manten zaitetz, sokorri taldeak etorriko dira



GERO

- Lekuak airezta eta desinfekta itzazu.
- Etxera hel zaitezkeela segurra ezazu, sokorri zerbitzuek eman aginduei jarraituz.
- Argindarra eta beste horniduren sarerik ez abian eman, zirkuitoak tekniki ikuskatu gabe.
- Zure osasunerako, ez edan dutxuluko edo putzuko ura, herriko etxeak edan daitezkeela erran arte.
- **Lokalak berogailuaz bero itzazu** hori egin daitezkeenean.
- Kalteak zerranda itzazu.



GAI LANJEROSEN GARRAIO ARRISKUA

Gai lanjerosak garraiatzen dituzten ibilgailuekin gerta daitezkeen zirkulazio istripu batek ekar ditzakeen ondorioak garraiatu gaien arabera dira nagusiki. Sokorri zerbitzuek eta udal taldeak zabalduko dituzte, halakorik gertatuz gero, horretarako egoki diren segurtasun agindu bereziak.

SEGURTASUN AGINDUAK

AITZINETIK

- Arriskuen berri izan eta zein gertatu den ezagutzen jakitea.


ARTEAN

Istripua ikusi baduzu:

- Alerta jo ezazu (18 edo 112: suhiltzaileak, 17: polizia), non gertatu den, nolako garraibide den, zenbat biktima izan daitezkeen, produktuaren zenbakia eta arrisku kodea (erronbo laranja kolore, ibilgailuan), zer gertatu den.
- Biktimarik balitz, ez mugiarazi, salbu sua bada, eta urrundu.
- Hodei pozoitsua hurbiltzen bazaizu, haizearen joarri perpendikularki lekutu, eraikin batera sar (gordetzea) edo handik lehenbailehen alde egin (lekutzea), narritadurarik baduzu, ongi garbitu eta, ahal baduzu, jantziak aldatu.
- Alerta, herriaren soinu tresneriaz zabalduko da.

GERO

- Gorderik bazara, alerta bukatzean, lokala airezta ezazu.



ARRISKU OROTARAKO



- ▶ Irratia entzun.
- ▶ Agintarien aginduak bete.



- ▶ Ez eskolara, haurrak hartzera joan, arriskutan ez jartzeko.



- ▶ Ez telefona, lineak sokorri taldeentzat libre utz

UHOLDE ARRISKURAKO



- ▶ Ez ibilgailua erabili.



- ▶ Ateak, leihoak, sotoleihoak eta airebideak hets.



- ▶ Gasa eta argindarra ken.

ITSASOAK GAINA HARTZEKO ARRISKURAKO



- ▶ Ez zaitetz itsas hegian promena.

GAI LANJEROSEN GARRAIO ARRISKURAKO



- ▶ Ez erre. Ez sugar ez eta pindarririk.



- ▶ Lehenbailehen, hurbilen den eraikinerara sar.



- ▶ Hets itzazu eta ongi tapatu ateak, leihoak eta haizeztatze bideak.
- ▶ Lekutu zaitetz.

LURRIKARA ARRISKURAKO



- ▶ Geriza zaitetz altzari sendo baten pean edo horma biren kantoian, eta leihoetatik lekutu.



- ▶ Inarrosaldiaren ondoren, gasa eta argindarra ken, ez erre eta sugar oro itzal ezazu. Eraikinetik igogailuak baliatu gabe jalgi, isolatu leku batera joan zaitetz.



- ▶ Eraikinetatik lehenbailehen jalgi.



- ▶ Autoan bazara, geldu zaitetz, eraikinetatik eta argindar harietatik urrun eta inarrosaldia gelditu arte ez jalgi autotik.



- ▶ Kanpoan bazara, eraikinetatik eta argindar harietatik urrundu eta aterpe baten gerizpean eman, errauskinen erortzetatik babesteko.



- ▶ Ez erre. Ez sugar ez eta pindarririk ere.

ALERTA

Informazioak eta aginduak telefono bidez emanen dira: deigailu automatikoz. Herriko Etxean ziarra ezazu banatze zerrendetan zarela.

KRISIALDIAN

Krisi bulegoa antolatuko da Hendaiaiko Herriko Etxean:

Tel. : 05 59 48 23 23

Arrisku egoera bat ikusi baduzu, suhiltzaileak abisatu:

**Tel. : 18 (telefono finkoa)
112 (sakelakoa)**

Sokorritarako beste zenbakiak:

Polizia 17 - SAMU 15

Kalte-ordainetarako DESMARTXAK

- Zure asurantzaren etxearekin mintza eta kontratua ikus.
 - Urak hartu leku eta guzuz argazkiak egin.
 - Ez deus bota esperta pasa arte.
 - Ezbeharraren berri duzunik bertatik abisa ezazu zeure etxeko arrisku orotarako asuratzaillea.
 - Adierazpen hori eskuratze agiria duen gutun artamendatuz igor ezazu.
 - Asuratzailleari adierazpenak, egunkari ofizialean hondamen naturaleko erabakia argitaratu denetik 10 egunen epearen barnean igor diezazkiozu.
- Ikus hemen: www.hendaye.com

Internet lotura baliagarriak

- Hendaiaiko Herriko Etxea : www.hendaia.eus / www.ville.hendaye.com
- Eguraldiaren iragarpenak eta zaintzak: www.meteo.fr
- Pirinio Atlantikoetako Prefektura: www.pyrenees-atlantiques.gouv.fr
- Arrisku handiei aitzintzeko ministerioaren ataria: www.prim.net
- Asurantzaren Dokumentazio eta Informazio Zentroa (CDIA): www.cdia.fr
- Departamendu bideen gaineko informazioa: www.cg64.fr/services-en-ligne/info-route.htm